

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

**DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTE**

ASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONES

VIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Ingurumeneko Departamentuak tokiko erakundeei ibaien ibilguak mantentzeko laguntzei buruzko informazioa eman die

Diru-laguntzek obraren kostuaren % 70 ordainduko dute; 300.000 euroko diru-laguntza izango da gehienez ere

Jueves, 30 de junio de 2011

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko teknikariek, gaur goizean, bilera egin dute toki erakundeetako ordezkariekin. Bileran, 2012an ibaien ibilguak eta sakanak mantentzeko eta leheneratzeko obrak egiteko [diru-laguntzen deialdiaren](#) berri eman diete. 700.000 euroko aurrekontuko partida erabili ahal izango da horretarako.

Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak hauek egitera bideratzen direnak izango dira: ibilguen hustubidearen gaitasunari eusteko, ur-bazterrak leheneratzeko eta ibaietako habitata hobetzeko lanak burutzeko eta garbitzeko, uholdeetatik babeste aldera, eta ibaietako ingurua biologiarri dagokionez berreskuratzeko. Horiek guztiak [Uraren Esparru Direktiban](#), [Uholdeetarako arriskuak ebaluatu eta kudeatzeko Direktiban](#) eta [Ibaiak leheneratzeko Estatuko Estrategian](#) ezarritako ildoekin bat etorri burutu beharko dira.

Nafarroako Gobernuaren laguntza aurrekontuaren % 70 da eta, horri esker, obraren gastuak, proiektua idaztea eta obren zuzendaritza ordainduko da. Asko jota 300.000 euro izango dira. Diru-laguntzak esleitzeko, proiektuen gizarteko errentagarritasuna eta interesa, babesten diren ondasunak eta saihesten diren arriskuak eta, oro har, leheneratzen den ibaiaren inguruko ingurumenaren onura baloratuko dira.

2011n 13 tokiko erakundeak jaso dituzte laguntzak. Erakunde horiek 976.834 euroko proiektuak burutzen ari dira eta Nafarroako Gobernuak zenbateko horretatik 683.784 euro eman ditu. Diru-laguntza jaso duten proiektuek hainbat jarduera barne hartzen dituzte, esate baterako, oztopoak iragazkortu, harri-lubetak eta eusteko hormak eraiki, ertzak birlandatu eta ur-bazterrak leheneratu.

2012rako laguntzen deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen iragan ekainaren 16an, tokiko erakundeek laguntzaren eskaria izapidetu eta, datorren urterako udaleko aurrekontua egin aurretik,



Ibaien ibilguak mantentzeko laguntzen inguruan informatzeko bilera

laguntza jasoko duten ala ez jakin dezaten. Urtarriletik aurrera epe bat izango dute konfederazio hidrografikoetan obren baimenak izapidetzeko eta obrak esleitzeko.

Nafarroako Ingurumen Baliabideen Zentroaren (CRANA) bidez antolatu den gaur goizeko bileran, berrogeita hamar tokiko erakundetako ordezkariak parte hartu dute, guztiak ekimenean interesatuak. Foru Administrazioaren izenean, deialdiaren baldintzak azaldu ditu Juan Jose Grau Nafarroako Gobernuko Uraren Zerbitzuko zuzendariak, Miguel Guibert Uraren Zerbitzuko teknikariak deialdiaren oinarri arautzaileak eta César Pérez Martín Ibaiertzen Berriztatze eta Obra Hidraulikoen Ataleko buruak aurreko urteetan Nafarroan leheneratu diren ibaien inguruko esperientzia interesgarrien berri eman du, baita ekintza mota egokien berri ere.